

Ordiziako Udala

2018ITGB0007

Ordizian, 2018ko apirilaren 16an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, Ohiko deialdian, eta honako hauek bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

José Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)
-------------------------	---------------

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2018ko martxoaren 19an egindako ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak.
- 3.- Zigor-espedienteen tramitazioan eta ebazpenean ezarriko diren irizpideak.
- 4.- Hainbat txosten eta eskaera.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Pasabideak arautzeko ordenantza.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:


- Hurrengo apirilaren 26an egingo den Hiri Hezitzaileen gaineko jardunaldia.
- ohiko osoko bilkurako data aldatzea.
- Urdaneta eskola eta Jakintza Ikastolarekin bilera.
- Garagartza Plaza hobetzeko proiektua.
- Obrak San Bartolomen.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15ean

AMAIERA ORDUA: 15:40ean





1.- 2018ko martxoaren 19an egindako ohiko bilkurako akta onartzea.

Akta aho batez onartu da.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du

2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- Zerrenda hauen berri eman da:

2017ko 87. zenbakiduna: 16.698,00.-€
2018ko 13. zenbakiduna: 82.292.-€
2018ko 15. zenbakiduna: 73.557,35.-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Zigor-espedienteetan isunen hobariak ezartzeko irizpideak.

. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Zehapen prozedura arautzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeak dakartzaten lege berrikuntzak prozeduron erregimenari, tramitazioari eta bukaerari dagokionez.

- Aipatutako 39/2015 Legeko 85. artikuluari jarraiki, hurrengo murriztapenak (metagarriak euren artean) aplikatuko zaizkie ebazpen aurretik ustezko arau hausleei edo espedientatuei kasu hauetan: ezarri beharreko sartzioaren gain gutxienezko %20ko murriztapena, erantzukizuna borondatez onartzeagatik eta gutxienezko %20ko murriztapena borondatez ordaintzeagatik, betiere ez bada jartzen zigorraren aurka akzio edo errekurtsorik administrazio bidean.


- Artikulu horrek xedatzen duen moduan ustezko arau hausleari murriztapenon berri eman behar zaio espedientearen inkoazioa jakinaraztean. Hori dela eta, ezinbestekoa da arau hausleak proposatutako zigorraren kopuru zehatza jakitea ordainketa burutu dezan eta gisa horretan prozeduraren instrukzioa bertan behera gera dadin.

-Legeek, Erregelamenduek eta Tokiko Ordenantzek xedatutako zigorrak ez direla beti zehatzak, hau da, kopuruaren arteko zati bat edo gehieneko bat ezartzen dutela.

- Tratu berdintasuna bermatzeko eta arbitrarietatea saihesteko zigorraren kopuruak ezartzeari dagokionez, Alkatetza honek

EBAZTEN DU:

* Aurreikusitako murriztapenak kopuru zehatzaren gain aplikatzea, kasuari ezartzea dagokion zigorra erregulatzen duen araudiak kopuru zehatza ezartzen duen kasuetan.



Ordiziako Udala

2018ITGB0007

* Xedatutako gutxieneko kopuruaren gain aplikatzea aurreikusitako murriztapenak, aplikagarri den araudiak ezarri beharreko zigorrari dagokionez kopuruarekiko bitarteko ezberdinak ezartzen dituenean, betiere gutxieneko kopurua 50 eurokoa izango dela. Irizpide hau ez da aplikatuko ustezko arau hauslea berrerortze astungarria ematen denean. Kasu horretan Alkatetzak erabakiko du ezarri beharreko zigorra.

* Ezarritako gehieneko kopuruaren laurdenaren gain aplikatzea aurreikusitako murriztapenak, aplikagarri den araudiak ezarri beharreko zigorrari dagokionez gehienekoa aurreikusten duenean, betiere gutxieneko kopurua 50 eurokoa izango dela. Irizpide hau ez da aplikatuko ustezko arau hauslea berrerortze astungarria ematen denean. Kasu horretan Alkatetzak erabakiko du ezarri beharreko zigorra.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

Aldeko erabakia hartu da.



4.- Hainbat txosten eta eskaera.

- 6000 €tik beherako fakturak.

2017ko 86. eta 88. eta 2018ko 12. eta 14. zenbakidun zerrenden berri eman da.

Fakturei oniritzia ematen zaie.

.....

- Pasabideak arautzeko ordenantza.

Alkate jaunak

azaltzen du zergatik aurkezten den ordenantzaren onarpena. Gaur egun, pasabideak ezarritako irizpide batzuen arabera ematen dira, baina gaia ordenantza baten bitartez arautu nahi da.

Nagusiki, hiru alderditan ardazten diren pasabideen gaineko arazoaz informatzen du:


- 1) Zonakatzea
- 2) Garajearen erabilerari jarduera tratamendua ematea.
- 3) Sarbiderako obrei eta seinaleztapen kostuaren gain hartzeari dagokionez, emakidunari betebeharrak ezartzea.

Sukia andreak

esan du ez dutela denborarik izan begiratzeko.

Mahai gainean geratu da.

.....



Ordiziako Udala

2018ITGB0007

- Alkate jaunak esan du ostegunean, apirilaren 26an, Hiri Hezitzaileen gaineko jardunaldia dagoela. Horrek goiz osoa iraungo duela eta beraz, zinegotzi batzuek eskatuta, osoko bilkura apirilaren 24ra aurreratuko dela, asteartera, eta nahiz eta dataz aldatu, ohiko izaera izango duela.

.....


- Alkate jaunak Urdaneta eskolarekin aurreko astean izandako bileraren berri eman du eta esan du laster, Jakintza Ikastolarekin bilduko dela. Data zehaztuko da.

.....

- Garagartza plaza: Hobekuntza proiektua. Esan du laster hobekuntza proiektua edo ideia aurkeztuko dela.

.....

- Obrak San Bartolomen: Alkate jaunak obren gaineko informazioa eman du eta behin-betiko norabideari eman nahi zaion planteamendua jakinarazten du. Auzokideen iritzia jasoko da.



5.- Galderak eta eskaerak.


Ez dago.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEA

Behin-behineko IDAZKARIA



Ordiziako Udala

2018ITGB0007

En Ordizia, siendo el día **16 de abril de 2018** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

ASISTENTES:

PRESIDENTE: José Miguel Santamaría Ezeiza

CONCEJALES PRESENTES:

José Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH BILDU
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain

CONCEJALES AUSENTES:

Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)
-------------------------	---------------

SECRETARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 19 de marzo de 2018.
- 2.- Facturas de importe superior a 6.000 €.
- 3.- Criterios a aplicar en la tramitación y resolución de los expedientes sancionadores.
- 4.- Informes y solicitudes varias.
 - Facturas de importe inferior a 6.000 €.
 - Ordenanza Reguladora de Vados.

ASUNTOS INCLUIDOS POR VÍA DE URGENCIA:


- Jornada sobre ciudades educadoras el próximo día 26 de abril.
- Cambio de fecha del pleno ordinario.
- Reunión Colegio Urdaneta e Ikastola Jakintza.
- Proyecto de mejora de la Plaza Garagartza.
- Obras en San Bartolomé.

HORARIO

HORA INICIO: 15,15 horas.

HORA FINAL: 15,40 horas.





1.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 19 de marzo de 2018.

Se aprueba el acta por unanimidad.



A continuación por parte del Sr. Presidente se da cuenta del siguiente punto

2.- Relación de facturas de importe superior a 6000 €

- Se da cuenta de las relaciones con numeros:

87 de 2017: 16.698,00.-€
13 de 2018: 82.292.-€
15 de 2018: 73.557,35.-€

Se dictaminan favorablemente.



3.- Criterios para la aplicación de bonificaciones de multas en expedientes sancionadores.


DECRETO Nº

A LA VISTA DE:

- La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, que introducen novedades legislativas en cuanto al régimen jurídico, tramitación y resolución de los expedientes sancionadores.
- Que conforme al artículo 85 de la citada Ley 39/2015 se han de aplicar a las sanciones económicas a imponer a los presuntos infractores antes de la resolución, de forma acumulativa, las siguientes reducciones: una reducción de al menos un 20% sobre la sanción a imponer, por reconocer voluntariamente su responsabilidad y una reducción de al menos el 20% por pago voluntario, siempre y cuando se desista o renuncie de cualquier acción o recurso contra la sanción en vía administrativa.
- Que el mismo artículo establece que en la notificación de incoación del expediente se comunicará al presunto infractor la posibilidad de dichas reducciones suponiendo ello dar a conocer al mismo la cantidad concreta de la sanción propuesta para que este pueda proceder al abono, evitando así continuar con la instrucción del procedimiento.
- Que las sanciones reguladas por las leyes, ordenanzas y reglamentos locales no siempre establecen cantidades concretas, sino tramos, escalas o máximos.
- Que en aras a la igualdad de trato y de evitar la arbitrariedad en la cuantificación de las sanciones, esta Alcaldía

RESUELVE:

* Cuando la normativa aplicable determine como sanción una cantidad económica concreta las reducciones previstas se aplicarán sobre la misma.



* Cuando la normativa aplicable determine tramos diferentes para la cuantía de la sanción a imponer, se aplicarán las reducciones previstas a la cantidad mínima regulada, estableciendo siempre como mínimo una sanción a imponer de 50 euros.

Este criterio se aplicará siempre y cuando no haya agravante de reincidencia por parte del expedientado en cuyo caso esta Alcaldía propondrá las sanciones que estime oportunas.

* Cuando la normativa aplicable determine una cantidad máxima a imponer para la cuantificación de la sanción, las reducciones previstas se aplicarán sobre la cuarta parte del máximo fijado, estableciendo siempre como mínimo una sanción a imponer de 50 euros.

Este criterio se aplicará siempre y cuando no haya agravante de reincidencia por parte del expedientado en cuyo caso esta Alcaldía propondrá las sanciones que estime oportunas.

* Notifíquese el presente Decreto al interesado.

Se dictamina favorablemente.



4.- Informes y solicitudes varias.

- Facturas de importe inferior a 6000 €.

Se da cuenta de los listados nº86 y 88 de 2017.12 y 14 de 2018.

Se da visto bueno a las facturas.

.....

- Ordenanza Reguladora de Vados.

Sr. Alcalde

Explica el por qué se plantea la aprobación de la ordenanza. En estos momentos se funciona a la hora de concesión de vados con una serie de criterios establecidos pero se quiere regular el tema a través de una ordenanza.

Informa sobre la problemática de los vados, que fundamentalmente se centran en tres aspectos:

- 1) Zonificación
- 2) Darle tratamiento de actividad al uso de garaje.
- 3) Imponer una serie de obligaciones al concesionario del vado en cuanto a las obras de acceso y asunción de costes de señalítica.

Sra. Sukia

Dice que no han tenido tiempo de mirarlo.



Ordiziako Udala

2018ITGB0007

Queda pendiente.

.....

- Sr. Alcalde dice que el jueves día 26 de abril hay una jornada sobre ciudades educadoras que durará toda la mañana y por lo tanto, a solicitud de algunos concejales, el pleno se adelanta al día 24 de abril, martes aunque tendrá carácter ordinario pese al cambio de fecha.

.....

- Sr. Alcalde da cuenta de la reunión mantenida con el Colegio Urdaneta la semana pasada y dice que en breve se mantendrá una reunión con la Ikastola Jakintza. Se fijará fecha.

.....

- Plaza Garagartza: Proyecto de mejora. Informa de que en breve se presentara la idea o proyecto de mejora.

.....

- Obras de San Bartolomé: Sr. Alcalde da cuenta de cómo van las obras y señala el planteamiento que se pretende dar a la dirección definitiva. Se recogerá la opinión de los vecinos.



5.- Ruegos y preguntas.

No hay.



Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Presidente levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo el Secretaria accidental, certifico.

EL ALCALDE

SECRETARIA accidental